



EBAZPENA, 2009KO AZAROAREN 2KOA, HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEARENA, GIZARTE-SAREEK ETA EUSKARA 2.0K EUSKARAREN ERABILERAREN SUSTAPENEAN DUTEN ERAGINKORTASUNA EZAGUTZEKO AZTERKETA EGITEKO BEHIN-BEHINEAN ESLEITZEKO DENA (K-41/2009 ESPEDIENTEA).

GERTAKARIAK

LEHENENGOA.- Hizkuntza Politikarako sailburuordearen 2009ko urriaren 14ko Ebazpenaren bidez, idazpuruan adierazitako kontratazioari buruzko K-47/2009 espedientea onartu zen, esleipen prozedura bezala publizitaterik gabeko negoziatua erabiliz, Alor Publikoko kontratuen Legeko 158 e) eta 161.2 artikuluekin bat etorritz.

BIGARRENA.- Espediente horretarako, eta egindako gonbidapenen arabera, Kultura Saileko Erregistroan honako enpresa hauek aurkeztu dituzte eskaintzak:

-FARAPI,S.L.-CODESYNTAX (Aldi baterako enpresa elkarte).....2009/10/27.....sarrera ZB 941616.

LAUGARRENA.- 2009ko urriaren 30ean egindako bileran, Kontratazio Mahaiak aurkeztutako enpresen kontratazeko gaitasuna aztertu eta gero, enpresek aurkezturiko dokumentazioa zuzena eta nahikoa zela ondorioztatu zuen, administrazio-klausula zehatzen agirian xedatutakoa betetzen duelako. Horrenbestez, proposamena aurkeztu zuten enpresa guztiak lizitaziora onartu zituen.

BOSGARRENA.- onartutako enpresak egindako eskaintza ekonomikoa honako hau izan da:

Enpresa	Proposamena (BEZ barne)
FARAPI,S.L.-CODESYNTAX (Aldi baterako enpresa elkarte)	60.000 €

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENENGOA.- Koordinaziorako Zuzendaritzako zerbitzu teknikoek enpresek aurkezturiko dokumentazio teknikoa eta eskaintza aztertu eta baloratu dituzte, kontratua arautzen duten baldintza-agirietan ezarritakoaren arabera.

BIGARRENGOA.- Koordinaziorako Zuzendaritzak egindako txostenean kontratua FARAPI,S.L.-CODESYNTAX aldi baterako enpresa elkarteari esleitzea proposatzen da, oro har hartuta egokia delako administrazioaren interesei begira, ikuspegi tekniko batetik aztertuta.



HIRUGARRENA.- FARAPI,S.L.-CODESYNTAX aldi-baterako enpresa elkarteak egiaztatu ditu bere gaitasuna eta kaudimena, bai eta eskatzen diren gainerako betekizun legezko eta formalak ere.

LAUGARRENA.- 2009ko irailaren 21ean kontratuari dagozkion obligazioei aurre egiteko kreditua kontsignatu da 09 0 1 10 23 0000 1 238 99 47113 009 V aurrekontu partidan.

BOSGARRENA.- Urriaren 30eko 30/2007 Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 144 eta 145 artikulua eta Kultura Sailaren egitura organikoa ezartzen duen otsailaren 14ko 25/2006 Dekretuaren 7.2.i artikulua kontratazio alorreko hainbat eskumen ematen dizkirate.

Baldintza-agiriak, espedienteko dokumentazioa, aipatutako lege-arauak eta horiekin bat datozen gainerako xedapen orokorrak ikusi dira, eta kontuan hartu dira Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Koordinaziorako Zuzendaritzaren proposamen-txostena eta Kultura Sailaren Kontratazio Mahaiaren erabakiak. Ondorioz, hau

EBATZI DUT:

LEHENGOA.- FARAPI, S.L (IFZ B-20856092) eta CODESYNTAX (IFZ B-20696092) aldi-baterako enpresa elkarteari esleitzea behin-behinean Gizarte-sareek eta Euskara 2.0K Euskararen erabileraren sustapenean duten eraginkortasuna ezagutzeko azterketa kontratazeko (K-41/2009 espedientea), enpresak egindako proposamen teknikoaren arabera esleipen kopuru guztia 60.000 € izanik. Lana gauzatzeko epea hilabetekoa izango delarik.

BIGARRENA.- Behin-behineko esleipendunak 15 lan-eguneko epean, ebazpena kontratantearen profilean argitaratu eta ondorengo egunetik kontatzen hasita, Baldintza berezien pleguko 20. atalean adierazten den dokumentazioa aurkeztu beharko du, bertan dagoelarik Zerga eta Gizarte Segurantzaren betebeharretan egunean izatea eta behin-betiko bermea jartzea Euskal Herriko Diruzaintza Orokorraren aurrean, Urriaren 30eko 30/2007 Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen 84 artikuluan adierazten diren moduetan, kasu honetan kopurua 2.586,21€ izanik.

HIRUGARRENA.- Ebazpen hau publikatu kontratantearen profilean, www.euskadi.net, eta esleipen prozesuan parte hartu duten enpresei jakinaraztea.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko azaroaren 2a



KULTURA SAIA
RAMON ETXEZARRETA-AIZPURU
Hizkuntza Politikarako sailburuordea
Viceconsejería de Política Lingüística